

Kallean gora kallean beherako kultur jarduerak aurrera doaz Areatzan

12. orrialdea

Atutxa eta Txikia IV.ak irabazi eben Binakako Aizkolari Txapelketea

Bikote irabazleak 39 minutu eta 49 segundoko denporea egin eban zortzi kanaerdiko, 60 ontzako sei enbor eta lau oinbiko ebagiteko. Andrazkoen txapelketan Zelai III.a eta Ansorregi izan ziran txapeldunak.

11. orrialdea



Tio Teronen Semeak-en Festamentua ikuskizuna eta Liher Igorren

12. orrialdea

Irune Costumero auziko lau akusaduak absolbidu dabez

Garagarriaren 21ean emon eban epaia Bizkaiko Audientzia Probintzialak.



Bizkaiko Audientzia Probintzialak ez ditu frogatuzat jo Costumerok salatutako prebarkazino administratiboa, tratu txarrak eta lesino psikologikoak. Igorretarrak helegitea ipiniko daua iragarri dau. **7. orrialdea**

Iraultza Txikien Akanpada egingo da Artean



Arteako Basoan izango da Iraultza Txikien Akanpadaren bigarren edizioa. Egitaraua eta izen emotea zabalik dagoz. "Piztuko dugu sua?" lemapean Euskal Herriko eragileak bost egun izango ditue alkarregaz gogoeta egin, burukatu eta eraikiteko. Aisialdirako ekintzak eta Arratia ezetuteko ibilaldiak be prestatu dabez. **8. eta 9. orrialdeak**

ARTEA

Artean erreka bat naturalizetako obrei ekingo deusie

URA Uraren Euskal Agentzia publikoak BI-3530 errepidearen azpitik igaroten dan erreka baten pasabidea atontzeko lanak lizitau ditu. Obren helburua Arratia errekeagaz alkatu baino lehen errekearen azken zatia naturalizetatea da. **7. orrialdea**

LEMOA

Lemoaztar bat jipoitu eben talde erasoan Zornotzan

Lemoako gaztea Gurutzetako erietxean larri ospitaleratuta dago, konortea barik itxi eben eta. Erasotzaileek jipoia bideoz grabau eben eta ondoren sare sozialetan eskegi. Irudietan 15 erasotzaile inguru azaltzen dira. Momentuz, hamar persona izan dira atxilotuak erasoagaz lotuta, horreetako bost adin txikikoak. **5. orrialdea**



Argazkia: Lemoako Udala.

DIMA

Guardia Zibilak speed laborategi bat atzemon eban Diman eta Lemoan gizon bat atxilotu

Bizkaia eta Gipuzkoa mailako operazio baten baitan topau eben Dimako "suitea". Bertan droga kantidade handiak atzemon ebezan eta substantzien balioa milioi bat euro-rainokoa izan eitekeen merkaduan. Aurkitutako substantzien artean kokaina, speeda, haxixa, LSDa, kalamua eta mentanfetamina orioa dagoz, besteak beste.

Atxilotuei jagokienez, Diman atxilotutakoa bilbotarra da eta Lemoan atxilotutakoa gizona dala emon dabe jakitera. Guztira, sei persona atxilotu ebezan. **6. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
garena.restaurant

Literatura txokoa

ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA

Mari Luz Esteban feministearen atzen poema liburu honek zahartzaroaren gogoeta poetikoa dakarzu. Liburu laburra baina esanguraz betea da, irakurteko arina baina sentimentu eta mezu sakonekoa. Hiru atal nagusi be-reizten ditu liburuak.

Lehenengo atalak, "Galdera-ikurra" izenekoak, zahartzea urrun ikusten dauan ume zein gazteen begietatik eta hirugarren personan kontetan ditu zahar egitearen nolakotasunak. Libu-ruko hiru ataletatik gozoena eta atseginena da eta hizkera erraza erabiltzen dau.

Bigarren atalak "Gorputzaren iragaitza" dauka izena. Politikea eta sexualidadea oinarrian, za-hartzaroan gorputzak jasaten

dituan aldaketak dira poema ho-neetan hizpide. Hainbat andra ar-tista eta pentsalariren aitemenak irakur leitekez poema honeetan.

Atzenik, "Andrezaharraren manifestua" dator, liburuaren helmuga dan aldarria. Andrezaharra subjektua adineko andren zalantza, kontraesan, hausnarketa kaleratzeko erraminta da, "hezur-haragizko gizakia, baina aldi be-rean metafora, figura poetiko-po-litikoa". Poemek beste forma bat hartzean dabe eta prosa poetikoa darabilte. Zahartzarora eta andrea, gorputzaren aldaketak, sexuali-dadea, adiskidetasuna... dira al-darriaren gaietako batzuk. Bizitza esperientzia luzearen gogoeta sa-konetik idazten eta komunikatzen dau Andrezaharrak.



Irakurle gazte zein helduak hotz itxiko ez dituan liburu ausar-tak barnea astintzea lortzean dau. Baina zalantza barik, andra oro, daukan adina daukala, hausnar-keta sakonera eta bizitako sen-tipenak birgogoratzera eroaten dau.

Amaia Trejo Aldekoa

Mari Luz Esteban
Andrezaharraren manifestua
Pamiela argitaletxea, 2019
64 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abuztuaren 2tik 8ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 9tik 15ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 16tik 22ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 23tik 29ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea. arratia@bizkaia.org*

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@errota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

* **Adi udako ordutegiari**

Babesleak:



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: *begitu@begitu.eus*

Webgunea: *www.begitu.eus*

Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga.

Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115. E-posta: *inigoirua@begitu.eus*

Erredakzino burua: Iraide Ibarrondo. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112. E-posta: *begitu@begitu.eus*

Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 626 647 923. E-posta: *asierabrisketa@begitu.eus*

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo *begitu@begitu.eus* helbidera.

BEGITU ALDIZKARIA

Urri lehenengoan
atal barria eukiko
dogu tarte honetan!

ERETXIA

Androk etsai
vs kide

Andra baten etsairik handiena beste andra bat da". Sarritan entzun izan dot esaldi gogaikarri hori, edota andrak txarrak garala beste andrakaz. Androk hil eta bortxatzen gaituenak, tratatu txarrak eta abusu sexualak jasan arazo egiten deuskuenak, gure gorputza esplotatu eta beronegatz trafikatzan dabena, guri min egiteko gure umeak erailten dabezanak, lanean gudanako sexualki oldarkor eta txantajea eginaz dabizanak edo parrandan andron edalontzian drogak botatzen dabezanak, matxismoaren semeak dira, baina halanda be, nire etsairik handiena beste andra bat dala esaten deustie, beste andrakandik gorde eta zaindu behar dodala neure burua.

Benetan tristura sakona sentitzen dot holango astakeriak entzuten dodazanean. Izan be, belaunaldiz belaunaldi transmitidu izan jakun sinismena da, gizarte kapitalista heteropatriarkauko kulturearen ondare pozoitua. Modu honetako ideak helarazoten deuskuenean, ostean zer dagoan argi izan behar dogu. Andren arteko gorrotoa, ikusiezina eta lehiakortasuna sustatzen da, menperatu behar dogun aurkariak beste andra batzuk dirala uste dogularik. Gure arteko norgehiagokan aritzea oso barneratuta izan dogu eta oindino hein handi batean be horrela izaten jarraitzen dau. Jarrera honeek sano egoera deseroso eta latzetan jartzen gaitue sarritan; matxismoaren aliatuei bidea errazten jakie, gu geure artean burrukan eta txutxumutxuka gagozan bitartean, gure min eta sufrimentua benetako fokotik, hau da, andren kontrako indarkeria matxistatik urrunduz.

Oso umetatik kutsatu gaitu gizartearen dinamikak giro honetan, andrak epaitu, seinalau eta errudun joteko jolas arriskutsuan. Andrak erruan hazita gagoz, hau da, ama onak, alaba onak, bikotekide onak, lagun onak, ikasle onak, langile onak... ezin hobeak



MAITE
ARRIZABALAGA
Kazetaritzan lizentziadua

izan behar dogula irakatsi deuskue eta gizarteko andra eta feminidadearen estereotipoa zorrotz bete behar dogu. Beraz, ildo horretatik urruntzen bagara, errua, harizko motxila pisutsua jartzen dogu gure lepoan, geure burua zigortuz edota beste andraren bat errailetik urten ezker, gogor zigortu behar dogula be ondo azaldu jaku. Andra libre eta enpoderauak gogor egurtzen dira, erreferentetzat hartu beharrean. Baina harri, sasi eta bide-zuloz betetako kaminoan, hainbat oztopo kendu deuskuezan aitzindariak badaukaguz, euren lanari esker guk gaur etorkizuneko argia dakusagu eta gure ondorengoak distira horren baitan hezi behar doguz, alkarrekiko errespetuan, maitasunean, alkartasunean, ulermenean, begirunean, laguntasunean, lankidetzan... Horregaitik, feminismoaren une gozo eta emonkorretan murgilduta nireganatu neban berba potolo zein ederra luzatzen deusuet andra ederrok, sororidadea. Itxi deiogun alkar epaitzen ari tzeari, gure artean errudunak bilat zeari, andrak gure artean lehia tzeari. Ez, ni ez naz zuen etsaia, zuen ahizta naz, begiak itxita es kua luzatuko deusuen, bidean trabak zuokaz batera baztertuko dituana, une latzak gailentzeko besarkada baten beroa eskainiko deusuen, zuen arrakastea ospatzeko irribarre egingo dauana, zuen sekretuen konplize izango dana, nik bai, sinisten deusuet eta beti maitasunez, beso zabalik hartuko dodaz zuen berbak. Guda honetan lubaki bardinean gara militante, beraz, alkarrieri eskua emonda, besoak altxau daiguzan ozen esanda, "Gora burruka feministea!".

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>



LUMATUTEN



PEIO MURGOITIO

Erreferente bila

Erreferenteak behar doguz. Bai edo bai. Ez dago beste-rik. Azken urteotan itzelezko abiadura hartu dau gizarte honen "ustezko" aurrerakuntzeak. Globalizazioan eta bat-batekotasunean bizi gara eta, neuri batean, gure hizkuntzea apurka pozoiz ikusiezin horrez kutsatzen gabiz. Horren eraginez betidanik gure hizkuntzearen erreferente izan doguzanak alde batera geratzen dabiz eta euskerearen oasiak be lehortzen hasiak dira.

Topikoetatik hasita, gustau edo ez, futbolak itzelezko eragina dauka gazteengan: hareen estilora orrazten dira, keinuak imitetan dabez... Espilu dira. Hurbileko futbol taldeari buruz berba egitean, euskaldunak bakarik jolasten dabela esanez beteten jaku ahoa. Euskal Herrian jaiotakoak bai, euskal hiztunak ez. Telebistan zein sare sozialetan presentzia handia dabenak ez dakie euskeraz eta ez dabe ahaleginik egiten gurera hurbiltzeko. Gazteen begietan dagozala kontuan izanik, garrantzia emon beharko leuskie horri.

Musikan antzeko zeozer gertatzen dabil. Gure betiko talde handiak ibilbi-

de musikala amaitutzat emon dabe azken hamarkadan. Izar izan diranak mito bilakatuz, hutsune handia itxi dabe errelebo sendo barik. Gure musikearen doinua hedatzeko badogu irati publikoa be, baina garrantzitsua goa ei da entzule gehiago izatea, gure taldeei jagokien lekua emotea baino. Hamar abestitik sei gure hizkuntzan ez diranak jartzean, ez deusagu euskerari ezelango mesederik egiten.

Telebista be eraldatuz joan da eta youtuberrak, streaming plataformak... nagusitzen hasiak dira. Ez gara gai izan gure nortasuna tresna eta aldaketa honetan txertatzeko, baina sasoiz gagoz erronka barri bat haste-ko. Gure telebista publikoan oster, maila altuko euskerazko programak eta telesailak dagoz baina horreei babesa emon beharrean, interesak beste batzuk dirala emoten dau, izan be, diru partida nagusiena erderaz dagoan *reality* batera bideratuta dago. Uriak kartekez beteten dabez, hedabideetan bonbardeetan gaitute... eta holan munduaren amaiera konkistatzera heldu gara! Ikurrina eta guzti! Baina dan-dana erderaz...

Aurreko parrafo horreek hiru adibideren pintzelada solteak dira baina begiak zabaldu ezker, beste hainbat eremutara heldu gaitkez. Zorionez badagoz gure hizkuntzearen alde burukan diharduten personak eta horreek dira txalotu, babestu eta erreferentetzat hartu behar doguzanak. Gu geu be beti izango gara norbaiten erreferente eta ezin dogu beste alde batera begiratura erantzunkizuna geure gainetik kendu. Beraz, geure hizkuntzarentzat etorkizunean zer gura dogun argi badogu, badakigu danok zer egin behar dogun!

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Hatz-bizar

Alferrikakoa da argi apal hau -hala diote, behintzat-. Laztura gorri hura ei zen dena: gibel eta hezur unatu haiek, larruzko mozalak, agenda puztu, paper beteak, eta nire bekokian zetzan zure gizontasun hura.

Munduak zer du...

Beste norbait jaio. Beste behin, dagoeneko ezer gutxi gogoan: gainezkaldi urrun bat, distantzia haiek, -metro batzuk baino ez-, zure paseo paisaia bihurtuak, eta eztarrian marrantatu zitzaidan bizar orban zuri hori.

Laztura odoldu hura ezin, inolaz ere, dena izan...

Zer dut...

Zer dut, behin zinema izandako honen atean egonean... Zer, kaio eta bozina artean birziklatutako murmurio tubularrekin tematzeko...

Beste zerbait jaio. Beste behin, hatz-bizar txiki baten antzera erresumin hilezko berri bat atzamarretik zintzilik.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Heldu da oporretako lehen argazkia BEGITURA, Zeanuriko Alvaro Rabellik bidalitakoa, gainera testu eta guzti. Eskerrik asko!

"Aurtengo udako gaube luze eta lasaiak pasetako, zer hoberik besaulki eroso, trapuzko katu, liburu on eta botila bete ginebra bat baino? Trapuzko katuak abantaila asko daukaz, mantenimentu fisiologikorik ez dau behar, eta Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburuak 1921eko Annualetako hondamendiaz gogoeta egiten lagunduko deusku" dino Rabellik.

Oporlekua edozein izanda be gogoratu BEGITUKO Oporretako Argazki Lehiaketara argazkiak bialtzen begitu@begitu.eus helbidera urri lehenengoaren 24ra arte.





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



agoa
hagin klinikoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegieta Zirkulua 101
R.P.S. 21/06



Olaetxe
OPTICA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEANURI

Abuztuaren 10era arte iraungo dau Zeanuri Loran IV. Txapelketeak

Epaimahaikideak abisau barik pasauko dira herriko etxe eta pisu guztietako balkoiak ebaluatzera. Etxeen eta pisuen kategoriak bereiztuko dira eta lehen saria 200 eurokoa izango da.

Erredakzinoa

Zeanuri Loran IV. Txapelketeak udalerriko balkoi ederrenak zeintzuk diran ebatziko dau. Horretarako, abuztuaren 10era bitartean, epaimahaikideak inor abisau barik behin baino gehiagotan hurretaratuko dira herriko pisu eta etxe guztietako balkoiak ikustera. Irabazlea zein dan ebazteko hainbat faktore hartuko dira kontuan: balkoi eta eskaileren zainketea eta mantenimentua; originaltasuna; loreen antolamentu eta konposizinoa; loreen aniztasuna, kalidadea eta iraunkortasuna eta espazioen zein elementu osagarrien (loreontziak, zintzilikariak...) egoera, besteak beste.

Kategoria bi bereiziko ditu txapelketeak. Alde batetik, pisuetako balkoiak balorauko dira eta, bes-

tetik, etxeetakoak. Kategoria bakoitzeko balkoi onenak 200 euroko saria izango dau. Bigarren postuan gelditzen diranak, aldiz, 100 euro boltsikoratuko dabez. Epaimahaia Zeanuriko Kultur Batzordeko kideak eta lorezaintzan aditua dan persona batek osotuko dabe. Epailleek ezingo dabe txapelketan parte hartu. Balkoi irabazleak zeintzuk diran Andra Marien egitarauaren barnean argitaratuko dabez. Ondoren, sari banaketea eta argazki erakusketea antolatuko dira.



AREATZA, ZEANURI, ZEBERIO

Uda eta udagoienerako bisita gidatuak antolatu ditu Gorbeia Jomuga Turistikoak

Urri bigarrenera arte Ermitabarri, Undurragako urtegia eta Areatzako alde zaharra bezalako txokoak bisitau ahal izango dira gidari bategaz.

Erredakzinoa

Gorbeia Jomuga Turistikoak parke naturaleko bisita gidatuen katalogoa argitaratu dau. Txangoak urri bigarrenera arte egingo dira eta hiru izango dira gure inguruak protagonistatzat izango dabenak: batetik, Zeberioko altxorrak, Ermitabarri, bestetik, Undurragako urtegia itzulia, Zeanuri eta, azkenik, Areatza herria ezagutzen. Abuztuan zehar, ibilaldiak zapatu eta domeketan egingo dira hitzorduetan unean-unean sustatu eta jakinarazoz. Parte-hartzaile kopuruari jagokonez, ez da gixieneko kopuru bat egongo eta gehienezko edukierak LABiren bileretan hartutako ebazkiek moldatu ahal izango dabez. Ibilbideak publiko orokorrari eta familiei dagoz zuzenduta. Hortaz, tarifik adinaren arabera izango dira: 12 urtetik gorako helduak 3 euro ordaindu beharko dabez; 6-12 urte bitarteko gazteak 1,5 eta 6 urtetik beherako umeak doban egingo dabe txangoa. Gainera, bisitearen txartela aurkeztu ezkero, parte-hartzaileek

pintxo bat izango dabe mosutruke Zeanuriko Sagarna Txokoan, Zeberioko Taberna Zaharrean edo Areatzako The Quiet Cornerren. Zeberioko altxorrak, Ermitabarri Ibilbide honetarako abuztuaren 14an, urri lehenengoaren 12an eta urri bigarrenaren 3an dagoz bisitak programata. Gidariak Zeberioko Ermitabarri auzoko Olabarrietako San Tomas elizearen aurrean itxarongo dau. Kilometro eskas bateko ibilbidea da, eta bertan inguruko tenpluak eta etxeak bisitauko dira ondarea ezetuteko. Txangoa egiteko ez da oinetako edo erropa berezirik beharko. Undurragako urtegia itzulia, Zeanuri Abuztuaren 7rako, urri lehenengoaren 18rako eta urri bigarrenaren 24rako dago programata itzulia. Ibilaldian, Gorbeia azpian dagoan Undurraga urtegia inguratuko da erroten ondarea eta Zeanuriko urtegia bisitatzeko. Parte-hartzaileak Zeanuriko pla-

zan alkartuko dira gidariagaz. Itzuliko lehen geldialdia Errota-barriko errotan egingo da. Bertan, gidariak erroterean berezitasunak, funtzionamentua eta errotarien lanaren nondik norakoak azalduko ditu. Bigarren geldialdia Undurragako urtegian izango da eta behin hara helduta, txangoaren ardura-dunak urtegiaren historia eta funtzionamentua azalduko ditu. Areatza herria ezagutzen Urtekera honeek hilaren 28an, urri lehenengoaren 25an eta urri bigarrenaren 10ean izango dira. Bisitan zehar Areatzako monumentuak, jauregiak eta etxetar barrokoak izango dira aztergai. Tartean, Santa Isabel komentua (XVI. mendekoa), Gortazar jauregia (XVI. mendekoa), Bekoerrota zein Goikoerrota errotak eta eleizea. Undurragako urtegia



LEMOA

Lemoako gazte bat era basatian jipoitu eben Zornotzan, taldeko eraso batean

23 urteko gazteak Gurutzetako erietxean egoera larrian ospitaleratuta jarraitzen dau, egonkor larritasunaren barruan. 15 erasotzaile inguruk jipoitu, erasoa grabau eta sare sozialetara igon eben.

Erredakzinoa

Garagarrilaren 25 goizaldean, domekaz, izan zan erasoa Zornotzako Jauregibarria inguruan. 15 persona inguruko talde batek, tartean batzuk adinbakoak, Lemoako gaztea gogor kolpatu eben konorte barik itxi arte. Gaztea bi aldiz operau behar izan dabe garezurrean eragin eutsiezan lesinoakaitik. Oingoz, eragindako koman jarraitzen dau erietxean. Momentuz, hamar persona atxilotu dabez erasoagaz lotuta. Horreetako bost adin txikiak diranez, Fiskaltzearen esku gelditu ziran. Bost helduei jagokienez, Durangoko epailleak horreetako hiru probisionalki eta fidantza ba-

rik kartzelaratzeko agindua emon eban. Laugarren bat, 38 urteko gizona, aske gelditu zan baina kaltetazko neurriakaz, eta bosgarrena, BEGIturen edizinoa ixterakoan, abuztuaren 1ean, atxilotu eben. Josu Erkoreka Segurtasun sailburuak azaldu eban atxilotuek talde antolatu bat osotzen dabela eta ikerketeak martxan diharduela: "Indarkeriaz jarduten dauan talde bat osotzen dabe. Oin arte be jardun izan dabe, batez be Bizkaian". Bestalde, Erkorekak azaldu eban talde honek "Hermanos koala" deitzean eutsala bere buruari. Lemoaztarra jipoitzeaz gain, erasotzaileek erasoa grabau eben eta ondoren bideoa sare sozialetara

igon. Gainera, bideoak erakusten dau erasotzaileek Zornotzako beste puntu batzuetan istiluak eragiten jarraitu ebela gau berean. Istiluetan beste gazte bi jipoitu ebezan eta hareek be ospitalera eroan behar izan ebezan kolpeen larritasunaren ondorioz. Erasoa gertatu eta egun bira, Zornotzan alkarretaratzea deitu eben herriko hainbat eragile eta bizilagunek azken asteetan herrian diharduten "erasoen eta giro oldarkorraren" aurkako salaketea plazaratzeko. Horrela, ehunka persona batu ziran alkarretartze "antimatxunoa"-n euren gaitzespena adierazoteko. Bestalde, herri seguru, anitz eta feministea eregiteko nahia aldarrikatu eben.



Lemoak ez ditu erasoak onartzen

Bere aldetik, Lemoako Udalak alkarretaratzea deitu eban joan dan garagarrilaren 29an. Hori horrela, ehundaka bizilagun batu ziran udaletxe aurrean erasoa salatzeko eta biktima zein senideei euren babes osoa helarazoteko. 15 minutuko konzentrazino isila egin eben lemoaztarrek. Amaieran, Eukeni Bikarregi alkateordeak komunikadu bat irakurri eban Udalaren izenean. Bertan, lehenik eta behin "alkartasuna" azaldu eutsen biktimearen senide eta lagunei. Horri gehituz, holango jarrera eta portaera oldarkorren aurrean "arbuiorik sakonena" adierazo eban Udal talde osoaren izenean. Amaitzeko, Udalaren konpromisoei egin eutsan erreferentzia alkateordeak: "Tokiko erakunde gisa, gorroto diskursoek lekurik izango ez daben Lemoa eta Zornotza bat eregiten jarraitzeko konpromisoa berresten dogu".

DIMA/LEMOA

Diman speed laborategi bat atzemon eta Lemoan gizonezko bat atxilotu eban Guardia Zibilak

Diman atzemonako drogak milioi bat eurorainoko balioa izan eikien merkaduan.

Erredakzinoa

Joan dan garagarriaren 22an, Guardia Zibilak Diman speed laborategi bat desegin ebala jakinarazo eban. Drogen aurkako operazioan ondoko substantziak topau ebezan Dimako "suitean": 20,3 kg anfetamina, 7 kg substantzia ebagita, 2 kg kokaina, 1 kg kokaina arrosa, 2 kg speed, 291 gr LSD, 2 kg marihuana, 49 gr haxix polen, 720 gr ketamina, 33 sildenafilo eukiontzi, oindino aztertze dagozan beste kilo erdi substantzia eta 25 kg metanfetamina orio.

Guardia Zibilak metanfetamina orioaren inkautazinoa nabarmendu dau. Izan be, metanfetamina orioaren litro bat ebagi ezker, 3 kg speed atera leitekez.

Guardia Zibilaren hipotesiaren arabera, Diman drogak "sukaldatzen" ebezan gerora espainiar estadu guztian zehar hedatzeko.

Dimako laborategia heritik urrun dagoan etxe batean topau eben; bazoan kokatuta eta sarbide gatxagaz.

Substantzia horreezaz gain, Guardia Zibilak suzko arma bat eta 47.000 euro topau ebezan eskudirutan. Halanda be, hori baino askoz handiagoa da inkautatutako produktuen balioa. Guardia Zibilak kalkulatzan dau atzemonako drogak milioi bat

eurorainoko balioa izan zezakete la merkaduan.

Dimako laborategiaren aurkikuntzea Bizkaia eta Gipuzkoa mailako drogen aurkako operazio baten baitan sartu da. Guztira sei persona atxilotu ebezan Tafallan, Donostian, Bilbon, Altsasun eta Lemoan.

BEGITU Guardia Zibilagaz hartu emonetan ipini zan, eta azaldu ebenez, Dimako sukaldearen ardurea Bilboko persona batek eukan. Lemoan atxilotutako pertsonaren inguruan galdetzean, gizonezkoa dala bakarrik azaldu eben.



Guardia Zibilak atzemonakoa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Goizaldeko 01:00etara aurrerratu dabe ostalaritzearen itxierea eta edukiera maximoa %35era murriztu

Ostalaritza zein merkataritzearen aforo eta itxiera orduak murrizteaz gain, joan- etorri handia daben uriguneetan mosukoa janztera derrigortu eta 01:00etatik 06:00etara "borondatezko konfinamentua" egiteko eskatu eban LABlak.

Erredakzinoa

Garagarriaren 23an, EAEko Babes Zibileko Planaren Aholku Batzordeak (LABI) osasun neurri barriak jarri zituan martxan kutsatzeen bosgarren olatuari galga jartzeko asmoz. Aldaketa nabarienetako bat ostalaritza, kultur eta merkataritza jardueri itxi- era ordua aurrerratu deusiela da. Oin, 02:00etan barik, ordubete lehenago itxi behar dabez atek. Horrezaz gain, gizarte, kultura edo kirol ekitaldietako gehie- nezko aforoak %35era murriztu dabez.

Salbuespen bakarra aurretiaz

kontratautako edo erreserbau- tako jarduerena izango da. Hau da, ezkontzak eta sarrerak au- rretiaz saldu dabezan kultur zein kirol emonaldiak esaterako.

Itxiera orduaren aurrerapena eta aforoan aldaketea neurri bisualenak diran arren, ez dira bakarrak. Horrezaz gain, "jentea biltzean dan uriguneetan" mo- sukoa ipinteko derrigortasuna itzuli da-eta. Horrek esan gura dau, jente asko dagoan tokietan, aire librean egon arren, maskarea ipintea nahitaezkoa dala.

Aurretik aitatutako horreek LA- Blak argitaratutako arauak dira. Halanda be, etxeratze agindurik

indarrean jarri ez badabe be, de- kretu barriak Betebehar zibikoak deitutako artikulua plazaratu dau. Artikulu honetan, LABlak "au- tomugatzeko" eskatzen deutse herritarrei gaueko 01:00etatik 06:00etara "borondatezko kon- finamentua" eginaz. Oingo, kutsatze tasa jaisteko helburua- gaz egindako eskaera bat da, bai- na ez da legea.

Itxialdi boluntarioaz gain, LA- Blak persona taldeak 6 kidera mugatzeko eskatu deutse EAE guztiko biztanleei. Baita autokon- finamentua eta autoisolamentu personala be, lehen sintomak agertu bezain laster.

IGORRE

Urri lehenengoaren 20rako aurreikusten da eskolako patioako obrak amaitzea

Obren bidez eskoletako patioa barriztau, jolasleku zein berdegune barriak ipini eta azpitik pasatzen diran hodian egoerearen azterketea egingo da.

Erredakzinoa

Igorreko eskoletan patioa erabari- tze lanak egiten dabiz. Momen- tuz, martxa onean omen doaz eta urri lehenengoaren 20rako buka- tuta egotea espero dabe. Obren bitartez asfaltoa barriztau, jolasgu- ne zein berdegune barriak ezarri eta, bide batez, patioaren azpitik pasatzen diran hodian mantentze lanak egingo dira.

Igorreko alkatea dan Illart Gumuziok azaldu dauanaren arabera, proiektua lau fasetan banatzen da: lehenengo eta bi- garren fasean, patioako aurreko alde guztia barriztauko dabe; hi- rugarrenean Haur Hezkuntza edo eskola "txiki" aurreko jolasgunea erabarrituko dabe eta azkenen- goan Lehen Hezkuntzako pa- tioaren goiko zatia.

Gumuziok esplikau dau behin asfaltoa altxatzen hasita, bide ba- tez, azpiko tuberien mantentze lanak egingo dabezala: "Lurrak altxauko dirala aprobetxau da hodiak errebisau eta beharrezkoa dan kasuetan barriak ipinteko". Horrezaz gain, alkateak uste dau patio barriaren "punturik fuertee-

na" bedarguneak eta testura edo material desbardineta jolasgu- neak izango dirala.

Jolasguneetako ezaugarriei jagokienez, Gumuziok aurrera- tu dau biltegi funtzinoa izango dauan eraikin txiki bat jarriko da- bela "gimnasia eta eskolako kon- tuetarako". Biltegi honek, esena- toki txiki bat izango dau ondoan eta baita "mini boulder" bat be. Horrezaz gain, skate edo bizikle- teagaz ibilteko eremu bat, ping- pong mahaia eta ohikoak diran saskibalo zelai, futbol zelai eta zibuak izango ditu patio barriak.

Proiektua 205.000 euroko au- rrekontuagaz esleitu da. Udalak diruaren %40 jarri dau eta Eusko Jaurlaritzeak gainerako %60a. Dana dala, aurrekontu honetatik kanpo gelditzen dira behin obrak bukatutakoan patioan landatu gura dabezan zugatzak.

Patioa barriztatzeko lanak due- la bi urte atera ziran esleipenera. Halanda be, hasikera batean ez zan inor aurkeztu. Gero, 2020an alarma egoereagaz batera, proze- dura administratibo guztiak eten ziran. Beraz, igaz ezin izan ziran lanak aurrera eroan.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Sistema aldaketea BEGITUren euskeran

Erredakzinoa

Oin arte erabilitako nork plurala -ak izatetik -ek izatera pasauko da BEGITU, eta nori plurala -ai izatetik -ei izatera.

Bizkai euskereak sistema bi ho-

rreek ditu, eta BEGITUren euskera eredua finkatu zanean, Arratiako idatzizko tradizioan oinarrituta, -ak -ai sistemea erabiltea ebatzi zan. Baina harrezkeroztik, bizkai euskera idatziak ibilbide handia egin dau eta -ek -ei sistemea na- gusitu da hedabideetan eta gizar- tean. Horregaitik, egungo gizarte zein euskereari hobeto egokitze- ko egin dau aldaketea BEGITUk.

ARTEA

Arteako kamino azpitik pasetan dan errekastobat naturalizetako obrak hasiko dabez

URA agentziak BI-3530 errepidearen azpitik igaroten dan errekastobaten pasabidea ordezkatzeko lanak lizitau ditu. Obren helburua Arratia errekeagaz alkartu baino lehen errekearen azken zatia naturalizeteta da.



Erredakzinoa

URA Uraren Euskal Agentzia publikoak iragarri dauanaren arabera, Arteako BI-3530 errepidea azpitik kurutzatzen dauan erreka baten pasabidea erabarrizteko obrak lizitau ditu. Lanen helburua, hormigoia kenduz, errekatxoaren forma naturala berreskuratzea eta iturburuari sekzino hidrauliko handiagoa emotea da.

Astui, Kalleja eta Astuibekoa kaleak zeharkatzen dituan iturburuaren pasabidea barrizatze lanen aurrekontua 79.000 euro gehi BEZa da.

Izan be, URA agentziak dinoanaren arabera, oin Astui kalearen alde bietan ezarrita dagozan hormigoizko ubideak ez omen dira bertatik pasatzen dan ura era egokian kanalizetako behar besteko handiak. Errekastoari bere ibilbide naturala bueltauz, uriolak

saihestuko leitekez.

Hori holan, proiektua hiru fasetan banatuko da: alde batetik, egun Astui kalearen parean kokatuta dagoan hormigoizko kanala kenduko da. Hormigoia ordezkatzeko, 54 metro luze izango dan eta ibaiaren ibilbide naturala errespetauko dauan trazadura ezarriko da. Honek kurbak eta leunguneak izango ditu, beraz, ez da 54 metro luzeko erreka zuzen bat izango.

Bestetik, uraren egungo ibilbidea desbideratuko da errepidearen azpitik pasau ez daiten. Horretarako, BI-3530 bide azpitik doan kanala 2x1,2 metroko hodi baten bidez bideratuko da urak gainezka ez egiteko. Lan honeek dira momentuz lizitau dabezanak.

Azkenik, proiektuaren azken fasean, errepidea eta Astuibekoa kalea bitarteko errekastozatia, 23 metro luze dana, atonduko da bere itxura naturala berreskuratuta dagian.

IGORRE

Aldundiko lau akusaduak absolbidu ebezan Irune Costumeroren auzian

Bizkaiko Audientzia Probintzialeko epaileek ez dabez prebrikazino administratibo, tratu txar eta lesino psikologiko delituak frogatutzat jo.

Erredakzinoa

Joan dan garagarilaren 21ean argitaratu eban Bizkaiko Audientzia Probintzialak Costumero auziaren sententzia. Epaileek lau akusaduak, Bizkaiko Foru Aldundian Gizarte Ekintzan Umeen eta Nerabeen Babeserako Zerbitzuan diharduten hiru funtzionario eta Sergio Murillo diputadua, absolbitu ebezan.

Epaileek ondorioztatu eben ez dagoala ebidentzia nahikorik Irune Costumerok salatu ebezan umearen kontrako tratu txarrak eta lesino psikologikoak frogatzeko. Bestalde, Costumerok salatutako hirugarren egitatea ezin dala "prebrikazino administratibo delitutzat hartu" ebatzi dau epaiak.

Hortaz, akusazinoak auzipetuntzat eskatzen ebezan 5 urteko kartzela zigorrak eta 15 urteko desgaituntzak bertan behera gelditu dira. Ostera, Bizkaiko Foru Aldundia be absolbiduta gelditu da arduradun zibil subsidiarioa izatearen akusazinotik.

Halanda be, Costumerok iragari dau sententziaren aurkako erre-

kursoa jarriko dauala EAEko Justizia Auzitegi Gorenean: "Legea eskuetan jarraituko dogu burrukan patriarkaduak daukan sistema honen aurka. Ze hau guztiau patriarkaduak sortu dauan sistemea da. Eta ez da zilegi modu honetan umetxoak torturetea".

Auzia Costumero igorreztarak ezarritako salaketa batean oinarritzen da: 2017an, oinarri zientifikorik ez daukan Gurasoen Alienazino Sindromea (GAS) argudiotzat hartuta, Costumero orduan bost urte zituan alabearengandik bereizi eban Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuak.

GASa da epaiketa honen kakoa. Existiduten ez dan sindrome honen arabera, gurasoetako batek umea manipuletan dau eta horren ondorioz beste gurasoakanako bildur irrazionala garatzen dau.

Nazinoarteko oihartzuna

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Podere Judizialaren Kontseilu Nagusiak patologia honen existentzia baztertzen dabe. Premisa horretatik abiatuz, kontuan

izan behar da gero eta erakunde gehiagok andren aurkako indarkeria sustatzeko tresna instituzionala konsideratzen dabela GASa.

Horren adibide da pasau dan bagilaren 4an onartutako Haurraren Babeserako Legean, Espainiako Gobernuak GASaren erabilerea debekatu izana.

Gainera, Nazino Batuen Erakundeko (NBE) Dubravka Simonovicek eta Elizabeth Brodericke espainiar estatuari eskatu eutsien Costumero kasuan "biktimei urratzen ebizan eskubideak betearazo" egiazan.

Politikan hautsak harro

Irene Montero Bardintasun ministroak Costumerori alkartasuna helarazoteko txio bat argitaratu eban sententziaren argitalpenaren biharamunean: "Ezin dot imajinau bere seme alabak indarkeria matxistarengandik babesten dituan eta justiziak lepoa emoten deutan ama baten mina. Nire babes guztia Irune Costumerori. GASa legez kanpokoa da pasau dan bagilatik".

Aitor Esteban jeltzaleak segiduan erantzun eutsan Monteroren adierazpenei, txio baten bidez honek be, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta akusaduen errubakotasuna babes-tuz: "Ministroak darabilen arintasuna eta dogmatismo ideologikoa sinistezinak dira. Erakusten dau ez dituala ez epaia, ezta gainerako erresoluzinoak irakurri. Ez jakoz funtzionarioen errubakotasun presuntzinoa ezta bere berba ardura-bakoak eragin daikien min konponezina ardura. Danak ez dau balio".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Ez da jairik egingo herri eta auzoetan

Erredakzinoa

Zeanuriko Udalak Andra Mari Kulturalak antolatu ditu, heritarrei zuzendutakoa da antolatutako programea, ekintza guztiak aforoa kontrolauta egingo dira eta momentuan bete beharreko osasun arauak beteko dira. Bestalde, Kartel Lehiaketako irabazleak Loli Txabarri nagusietan eta Mikel Olibares umeen kategorian izan dira.

Abuztuak 13, barikua
18:30ean, pelota partiduak Ibarretan.

22:00etan, Xabier Aburruzagaren kontzertua plazako frontoian.

Abuztuak 14, zapatua
11:00etan, umeen jokoak.
18:00etan, Ardi Txakur Txapelketea.
22:00etan, *Ez dok ero* antzezlanak Ibarretako frontoian.

Abuztuak 15, domekea
Andra Mari Eguna
11:30ean, mezea Andra Mari parro-kian.
13:00etan, trikitilari bikotea plazan.
19:00etan, *Áureo* Up Arte konpai-

niaren zirku antzerkia Ibarretan.
22:00etan, Deabru Beltzak-en *Su à feu* Ibarretako plazan.

Abuztuak 16, astelehena
11:30ean, mezea Andra Mari parro-kian.
18:30ean, pelota partiduak Ibarretan.

Areatzan osteria, aurten be ez da San Bartolomeetan ohiko jairik egingo. Jai Batzordeak abuztuaren 10ean egingo dauan batzarrean ebatziko dau abuztuaren atzen astean ekintzaren bat antolatu edo ez.

Zeberion be momentuz ez dago ezer zehaztuta, eta zeozer egote-kotan hilaren erdikalde inguruan zehaztuko dabe.

Auzuneei jagokienean Arratiako auzune eta ermita ugaritan ospatzen izan dira jaiak. Igaz ia ez zan jairik egin eta egin zana xumea izan zan, aurten be antzeko zeozer espero daiteke.

Abuztuan, Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberio San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak izaten ziran hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan

eta Zeberio San Elizondon ospatuten ziran. Hilaren erdian, Igorren eta Zeberioan be egiten ziran jaiak eta hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen be, ospatuten zan leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Hilaren 24an, sanbartolomeak ospatuten ziran Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Igorre eta Lemoan ez dira egin-gu abuztuan ohikoak izaten diran jaiak, Diman be Artaunen eta Olazabalen ez da jairik egingo. Gainerako herrietan be ez dago jairik aurreikusita. Zeanurin ekintza kulturalak antolatu dira hilaren 13tik 16ra.

IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

***Iraultza txikiak batu,
txikikeria barik iraultzeko***

Militante, aktibista eta defendatzaileen etxea dan Basoa hasi da bizia hartu eta sortuten. Azken hileetan egindako lanak inguruko eragile taldeak astindu ditu eta abuztu amaieran emongo dau beste pausu erraldoi bat. Iraultza Txikien Asanbladaren bigarren edizinoa egingo da Basoan eta Euskal Herriko alkarteetako militante guztiei egin jakie hurbiltzeko deia. Aurkezpenean esan eben modura, "antolatzeko, alkar elikatzeko, konspiratzeko, gozatzeko eta mobilizetako" egunak izango dira. "Piztuko dugu sua?" lemapean, herri mobimentuen garrak berbiztera datoz Arteara akanpadan. Arratia, Zeberio eta Ubiden eragin handia eukiko dau topalekuak. Alde batetik, bertako alkarteek kanpo esperientzietatik ikasiko dabelako eta bestetik, Euskal Herriko militanteek hemengo burrukak ezetuko dabezalako.

IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

-herri mugimenduen topalekuak-
convergencia de luchas / الاتحاد قويا / convergence des luttes

abuztuak 25-29
ARTEA (BIZKAIN)

*Izena emateko:
ita.eus

Elkarri lo-zakua, kanpina...
eta ez ahaztu musukoa!
COVID19aren aurkako neurriak hartuko dira

ELKARREKIN BORROKATU
ELKARREKIN GOGOETATU
ELKARREKIN ERAIKI

Umeentzako guneak egongo dira

25 Asteazkena

Arratsaldean jantzi

13:30 15:45 16:00 18:00

Bazkaria

HARRERA EKITALDIA

18:30 20:30

LOITBIO+ kolektiboa herri mugimenduetan

Erronka eta praktika feministak gure errealitatean

Ekonomia sozial eragileak

21:00 22:00 23:00

Afaria

Ane eta Maddi kontautoreak

26 Osteguna

8:00 9:00

Chikung: luzaketak eta ernaketak podo Gernendi

Gosaria

TXIKIENTZAKO: Somen-gunea, mugimendu-gunea eta gure lasaia

Asanblada

10:00 13:00

Kritikologikoa: Hehehutsa eta erronkak

Grasa matxistak herri mugimenduetan, erantzun kolektiboa

Latinoamerikako esperientzia

13:30 15:45

Bazkaria

Peru Golbete kontautorea

16:00 18:00

"Mundua eraldatu gaitzake errezeta"

Transfeminismo: teoriatik praktikara

Urtarraren 18tik 2018: Latinoamerikako eta Ertzeko herri mugimenduen

18:30 20:30

Itxialdiaren berriak, berpizteak eta emonak

Indigenismo XXI mendian, hile eta portaketa

Hamas pindabier eta hamasei jakintza gure tradizioan

21:00 22:00 23:00

Afaria

BAHAGIA: Soria (Elkarrekin)

Andorra eta munduko beste herrialdeak: Mari Ene (Enekoa)

27 Ostirala

8:00 9:00

Chikung: luzaketak eta ernaketak podo Gernendi

Gosaria

TXIKIENTZAKO: Somen-gunea, mugimendu-gunea eta gure lasaia

Asanblada

10:00 13:00

Next Generation funtsak, eraldaketarako aukera eta kapitulario berria

Gurea da gure pentsa: Berriak, eraldaketaren alde

Euskal Herriko herri mugimenduen

13:30 15:45

Bazkaria

Ane eta Ainhize kontautoreak

16:00 18:00

Antolatzea ereduak eta eredu berriak

Sareko ereduak

Eldadura buruzkoaren lehenak, zailtasunak eta eronak

18:30 20:30

Matroka ma non troppo - Irakmatroka konpainia

Artikuluaren berriak

Euskal Herriko herri mugimenduen

Saharako gatazken historia

21:00 22:00 23:00

Afaria

Bertse afaria: Soria Alkiza, Miren Artetxe, Oritza Erbelo

28 Larunbata

11:00-14:30 Azoka erakusketa eta tomate dastaketa
Arteako plazan

8:00 9:00

Chikung: luzaketak eta ernaketak podo Gernendi

Gosaria

TXIKIENTZAKO: Somen-gunea, mugimendu-gunea eta gure lasaia

Asanblada

10:00 13:00

Artikuluaren berriak

Urtarraren 18tik 2018: Latinoamerikako eta Ertzeko herri mugimenduen

Komunikazioa

13:30 15:45

Bazkaria

Bakarrizketa: Nerea Arriola

16:00 18:00

Basoen erabilera eta ereduak

Terrakuntza

Herri mugimenduen

18:30 20:30

Prekaritatearen aurrean

Sakulitateak / Prekaritateak

Komunitatearen berriak

21:00 22:00 23:00

Afaria

Ein GO musika taldea

29 Igandea

8:00 9:00

Chikung: luzaketak eta ernaketak podo Gernendi

Gosaria

TXIKIENTZAKO: Somen-gunea, mugimendu-gunea eta gure lasaia

Asanblada

10:00 13:00

Mural margoketa

Ibilaldi marxa: EUKALIPTORIK EZ, HARITZA BAI!

13:30 15:45

Bazkaria

Folklorikoa

16:00 18:00

ITXIERA EKITALDIA

piztuko dugu sua?

Erredakzioa

Erraustegiaren eta makro kartzelaren kontrako burrukea erdian, Zubietan egin zan ITaren lehenengo edizinoa 2018ko urri lehenengoan. "Mundua errotik eraldatzeko" batu ziran akanpadan, eta bertan ehundutako konplizidade eta afinidadeak "sugarren gose" diralako ebatzi dabe

barrio batzea. Orduan, antolatzailleek uste ebena baino jente gehiago batu zan, 300dik gora. Aurten marka hori gainditzea da helburua.

Zubietako esperientzia errepetidu eta garatu behar zalakoan, urte birik behin egiteko berbea hartu eben antolatzailleek. Koronabirusa dala eta, 2020an antolatu barik gelditu zan ITA.

Abuztuaren 28an,

10:00etatik aurrera,

Arratiako burruken

kontaketa ibiltaria

egingo da

Oin, pandemia amaitu ez bada be, honen eraginez gazteria eta langileriaren egoerak txarragora egin daualakoan, ebatzi dabe herri mobimentuen praktika prozesuak ezin dirala eten. 2018an Euskal Herriko giro politikoan aldaketak zirala eta, Zubietako helburuetako bat "burrukarako erremintak garaira moldatzea" izan zala dino Zigor Olabarria

ITako antolatzailleak. Ziklo aldaketa globalizauagoa da oingoan eta honeri be egin beharko deutso aurre Iraultza Txikien Akanpadak abuztuaren 25etik 29ra.

Aukerak

Aurtengo Iraultza Txikien Akanpadan zer egongo dan galdetu ezker, erantzuna "aukerak" da. Zigor Olabariak dino eskualdeko



jentea asko inplikau dala eta jente anitzagoa egon dala antolaketan. Hau egitarau oparo baten islatu da, dozenaka aukera emoten dauz programazioak. Hiru egunetik bostera egin dau salto ITAk eta goiz zein arrasti baktorean gixtienez hiru aukera izango dauz bisitariak aukeratzeko. Izan be, jente anitzagoa hurbiltzeko aukereaz aparte, talde txikiagoak parte hartutea sustatzen dabela esaten dau Oلابarriak.

Aukeran, hainbeste berbaldi, mahai-inguru, eztabaida eta alkarizketa dagoz egitarauan. Gaur egun auzitan dagozan gai ia daten inguruan ikasi edo, sikan, gogoetea egingo dabe hurreraturen diranek. Eraso matxistak, krisi ekologikoa, prekariedade, euskerea, espetxe-ereduak eta etxebizitza faltea adibidez. Bestalde feminismoaren, ekonomiaaren, autodeterminazioaren eta militantzia ereduaren inguruan gogoetea egiteko aukerea egongo da. Baina batez be, bertako eta kanpoko, galdutako eta irabazitako, burruka eta gatazken inguruan egingo da berba, talde eragileen helburua ikasitakoa praktikan jartzea da eta.

Aisialdirako denporarik ez da faltauko Iraultza Txikien Asanbladan. Umeentzako gunea egongo da, dinamizazio eta jokoakaz. Baina nagusi eta gazteek be eukiko dabe non lasaitu. Musikea, bertsoak eta poesia, bakarrikzeta umoretsua eta ariketa fisikoak be egongo dira bazkari eta afarien ostean.

Arratia berbagai

Topalekua hau izanda, Arratia eta bertako burrukak be izango dira berbagai Basoan. Adibidez, gatzetxeen kontrako erasoak, nekazarien kooperatibak, baso eta mendien egoerea, errefujiaduen harrerea eta langileen gatazkak ezetuteko aukerea eukiko dau Euskal Herri osoko jenteak. Bozgorailu indartsua izango da hau

Arratiako gatazkentzako. Kanpoko inplikazioa eta idea barriak ezin hobeto etorriko jakiez bertako eragile sozial, politiko eta ekonomikoei. Gainera, ITAn ikasitakoa-gaz, militante taldeek "burruken erreferentziak indartu" ahal izango dabez inguruetan.

Honetarako aukerea egongo da zapatu goizean, abuztuaren 28an, 10:00etatik aurrera, Arratiako burruken kontaketa ibiltaria egingo da, bidean kasu konkretuak ezetuteko. Domekan barriz, 10:00etatik aurrera ibilaldi-marxtea egiteko aukerea egongo da, "Eukaliptorik ez, haritza bai!" lemapean bertako basoen egoerea ezetuteko.

Ostera, Basoan konsumiduko dan janaren eta edanaren zati handi bat inguruko produktuak izango dira. Nekazari eta kooperatibentzako be bultzada izango da Iraultza Txikien Akanpada.

Ondo bizi

Bigarren edizino honetan, analisiak eta helburuak ez dira aldatu. Inguruaren baldintzak dira aldatutakoak eta beraz, tresna barriak topatu behar ditue herri mobimentuetako militanteek. Pandemiak mendebaldeko neoliberalismo prozesua arindu dau eta honeri aurre egiteko *Ondo bizi* kontzeptua azpimarratu gura da ITAn. *Ondo bizi*, edo *Sumak Kawsay*, Andeatako kitxua kulturearen idea praktikoa da, Bolivia eta Ekuadorreko konstituzinoetan be agertuten dana. Honen bidez, kitxuek gizaki eta ingurumenaren arteko erlazino barria planteetan dabe. Horrezaz gain, kulturen arteko erlazinoak normalizetea, produkzio ereduak eraldatzea eta komunitadearen garrantzia azpimarratzen dau *Sumak Kawsay* filosofiak beste idea batzuen artean. Esan beharra dago, azken urteetan Andeatako komunitade indigenek aurrerapausu handiak egin dabezala honen izenean.

Manikura
Pedikura
Depilazioa
Solatsum-a

Bihotza
Estetika Zentroa

Vika
Lehendakari Agirre, 2 beheko - 2D - Igore - 689 766 062

Agurak
gurekin
onartu!

ERROITZ
OKA

Lehendakari Agirre 10
Igore

Kili~Kili
Amopo eta Puertokultura

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bilaketa)
Tel: 94 673 43 51

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

begitu
eus

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Gaiher 666 58 20 06

Pozusta poligonoa, 10 IEMOA • beerandariak@gmail.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Plantea daga jartze *Bidea daga proiektu*

-Salmentan zein alokairuan
Lurrak (erakileak, landak, basoak...)
Etxebizitzak (barrak, baserriak, etxeak...)
Garaiek
Lokar komertzialak
Pabiloiak...
-Balonazkoak

Erakile berriak erakitzeko
Erakileak
Arkitekto-proiektuak
-Lan diseinua
-CEE eta ITE-ak
-Hirigintza ahalgarritza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 28, beheko - Igore
Agurak: 94 673 51 89 - 435 74 31 31
Gizarte: 94 673 51 89 - 435 74 31 31
arria@arratia.com

UDA KULTURALA
2021 Igorre

ABUZZTUA

ABUZZTUAK 7
Tio Teronen Semeak.
Festamentua
DANTZA ETA UMORE EMANALDIA
19:00

ABUZZTUAK 21
Liher
KONTZERTUA
19:00

Eguraldi onagaz Goiko Plazako frontoian, txarragaz Kultur etxean

IGORREKO UDALA

Gonbidapenak eskatzeko:
www.igorrekultura.blogspot.com

PELOTEA

Amaia Aldai Plazandreak Txapelketako finalerako sailkatu da

Erlantz Garcia eta Reyes Azkoitiaren taldeek lortu dabez finalerako txartelak. Finala abuztuaren 2an izango da arrastiko 19:30ean Zornotzako Zelaieta pelotalekuan.

Erredakzinoa

Abuztuaren 2an jokatu da Laboral Kutxa Plazandreak Txapelketako finalera heldu da Amaia Aldai dimoztarra. Izan be, joan dan garagarilaren 26an jokatu azken saioan, txapelketa osoan zehar liderrak izandako Mikel Inuntziagaren taldeko neskak finaletik kanpo gelditu ziran.

Hori holan, lehen partiduan, lau eta erdiko banakakoan, Miriam Arraizak aise irabazi eutsan Maddi Berrocali markagailua 1-12 itxita. Bigarreanean, pelotariet bikoteka jokatu ebenean, Arrate Bergara eta Miren Larrartek galdu egin eben Leire Garai eta Enara Gaminderen aurka. Hori holan, 7-12 gelditu zan markagailua. Azken partiduan, kaiolakoa, Larrarte 12-8 gailendu jakon Garairi.

Lehia hain parekatua izan zan, buruz buruko lehietan Arraiza eta Larrartek lortutako garaipen biei esker, hiru taldeek seina puntu batu ebezala azken sailkapenean. Beraz, finalera nortzuk pasauko ziran ebazteko averagera jo behar izan eben.



Zenbaketan Azkoitiaren taldea atera zan garaile aldeko 116 tantugaz. Bitartean, Garcia eta Inuntziagaren taldeak 110na tantugaz bardinduta egozan. Beraz, bardinketea hausteko alkarren aurka jokatu partiduak balorau ebezan. Garciaren taldeak jokatu sei partiduetatik lau irabazi ebazanez, honeei emon jakien finalerako bigarren txartela. Hortaz, justu-justu baina Amaia Aldaik, Leire Garaik eta Uxue Osese osotutako taldea finalera klasifikau zan.

Seigarren jardunaldian Aldaik eta bere taldekidea dan Osese ez jokatzeko arrazoia konfinauta egon zirala da. Halanda be, finalaren egunerako Garaigaz batera lehiatzeko prest egongo dira.

Final handia

Finala datorren abuztuaren 2an, astelehenean, jokatu da Zornotzako Zelaieta pelotalekuan. Arrastiko 19:30ean izango da eta txapelketa guztian aurrenekoz publikoa joan ahalko da. LABlak ezarritako neurriak bat eginaz, pelotalekuaren aforoaren %35 bete ahalko da.

PELOTEA

Amaia Aldaik ezin izan eban Nafarroako Foru Komunitatearen Trofeoko txapela Dimara ekarri

Salsamendi-Ruiz de Larramendi bikotea 18-22 gailendu jakien Amaia Aldai dimoztarrari eta Naroa Agirreri.

Erredakzinoa

Garagarilaren 3an jokatu eben Iruñeko Nafarroa Arenan Nafarroako Foru Komunitatearen Trofeoko finala. Salsamendi-Ruiz de Larramendi bikotea izan zan elite mailako txapelduna: 22-18ko emaitzeagaz nagusitu jakiezan Aldai eta Agirreri. Gazteen mailan, barriz, Arraiza-Gaminde izan ziran txapeldunak.

Finala galdu arren, Amaia Aldai pelotariak partidua modu positiboan balorau eta arerioen lana goraitu eban: "Erritmo altuko partidua jokatu dogu. Guk galdu beharrean, Salsamendik eta Ruiz de Larramendik mereziduta irabazi dabe". Holan, oingo honetan garaipena lortu ez badabe be, egindako lanagaz "gustura" gelditu zan bikotea.

Izan be, partidua sano parekatuta izan zan uneoro. Bikote biei jokoan sartzea kostau jakien

hasikeran, baina tantuak aurrera egin ahala jokoaren maila igoz joan zan. Joko maila apartaren erakuslea Laia Salsamendi izan zan. Hamalau urte eskaseko



Amaia Aldai.

Amaia Aldai eta Ainhoa Ruiz de Infante Plazaz Plaza Txapelketako finalerdietatik kanpo gelditu dira

Erredakzinoa

Amaia Aldai eta Uxue Osese osotutako bikoteak ezin izan eban Plazaz Plaza Txapelketako final-laurdenetara sailkatzeko txartela lortu. Final-laurdena Olatz Arribabalaga eta Ane Mendibururen kontra jokatu eben garagarilaren 31n Donamarian (Nafarroa) eta 22-6 galdu eben.

Ainhoa Ruiz de Infante eta Olatz Ruiz de Larramendik osotutako bikoteak be galdu egin eban egun berean Donamarian final-laurdeneko partidua 22-17 Andrea Aldaregia eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra.

Bartzelonan partiduak

Garagarilaren 18an, Bartzelonako Club Natació Barcelonan

izabarrak tantuak ederto amaitu ebazan Amaia Aldai aurkari gogorrrari tinko eutsiz.

Aldaik eta Agirrek partidu onak jokatu ebezan txapelketa osoan zehar, baina finalean zeozertxo makaldu ziran. Markagailuan 10-15 bezalako tarteak izan ziran. Baina, gerora, Aldaik eta Agirrek 18-20ra heldu arte lortu eben nafarrai hurbiltzea. Halanda be, ez eben markagailua iraultzea lortu eta txapela Salsamendi eta Ruiz de Larramendik eskuratu eben.

Nafarroa Arenaren kasuan hitzordu berezia izan zan finalarena. Pandemiaren ondorioz urte eta erdiz itxia egon ostean, Nafarroa Arenak andrazkoen lehen jaialdia jasoteko zabaldu zituan ateak. Hori holan, 400 pelotazale gerturatu ziran final handia ikustera.

jokatu partiduan, Aldaik eta Osese osotutako bikoteak ezin izan eban garaipena lortu. Beraz, 14-22ko emaitzeagaz, Aldaregiak eta Ruiz de Larramendik irabazi eben. Bartzelonan pelotari profesionalek jokatu lehen partiduak izan ziran. Ainhoa Ruiz de Infante be jokatzekoa zan Bartzelonan erakustaldi partidua, baina azkenean ezin izan eban jokatu.

Partiduaren ostean egindako adierazpenetan, Osese ez zala euren partidurik onena izan aitortu eban. Aldaik, oster, Bartzelonan jokatzeko eta bertan holango giroa topeteko pozgarria dala adierazo eban.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

AZKOREA

Atutxak eta Txikia IV.ak irabazi eben Binakako Aizkolari Txapelketea

Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan jokaturako txapelketan, Andrazkoetan Zelai III.a eta Ansorregi izan ziran garaile. Gizonezkoen Promozino Mailan, aldiz, Kañamaresek eta Pellejerok bereganatu eben txapela.



Txikia IV. eta Aitzol Atutxa garaipena ospatzen.

Erredakzinoa

Pasa dan garagarriaren 16an, bariku gauean, Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan izan zan norgehiagokea. Bertan, Aitzol Atutxa eta Julen Alberdi Txikia IV.a bihurtu ziran Sherpa.ai Binakako Aizkolari Txapelketa Nagusiaren lehen edizinoko txapeldunak. Irabazleak ia minutu bateko abantaila atera eutseen bigarren sailkatutako bikoteari.

Hamabi bikotek neurtu ebezan indarrak orotara: bostek gizonezkoen maila nagusian; hiruk andrazkoen maila nagusian eta beste lauk gizonezkoen promozino mailan. Lehen mailako

gizonezkoen kategorian Atutxa dimoztarra eta Txikia IV.a izan ziran txapeldunak, andrazkoetan Zelai III.a eta Ansorregi eta gizonezkoen promozino mailan, osterara, Kañamare eta Pellejero.

Parte hartzaileek zortzi kanaerdiko (54 ontza), 60 ontzako sei enbor eta lau oinbiko (72 ontzakoak) ebagi behar ebezan ahalik eta bizkorren. Atutxak eta Txikia IV.ak 39 minutu eta 49 segundo erabili ebezan egokitutako enborrak mozteko. Iker Vicentek eta Azurmendik, osterara, ia minutu bat gehiago behar izan eben, 40 minutu eta 44 segundoko denpora eginaz. Hirugarren sailkatuak Eneko Otaño eta Ugaitz Muger-

tza izan ziran 43 minutu eta 44 segundoko tarte erabiliz. Laugarren postua Mikel Larrañagak eta Jesus Mari Mujikak eskuratu eben mozketarako 45 minutu eta 9 segundo baliatuz. Atzen postuan Jon Irazu eta Jon Rekondo kokatu ziran lanak bukatzeko 47 minutu eta 9 segundo behar izan ebeza-lako.

Andrazkoek, barriz, kana-erdiko bi eta 36 ontzako enbor bi moztu behar izan ebezan. Honeen kasuan, Zelai III.a eta Ansorregiren ostetik Beatriz Tanco eta Maika Ariztegi sailkatu ziran. Atzen postuari jagokonez, Garazi Arruti eta Julia Martinez azkolariak kokatu ziran bertan.

Sherpa.ai Binakako Aizkolari Txapelketearen lehen edizinoa

Txapelketa honek antolakuntzan dauka bereizgarri nagusia. Izan be, azkolariak era independientean antolatutako txapelketea da, Euskal Herriko Herri Kirol federazinotik kanpo.

2020ko urri lehenengoaren 24an, azkolariak federazioaren aldetik "itxikeria handia" egoala eta osasunaren eta txapelketen antolakuntzearen arloan desadostasun handiak ebezala salatu eben.

Hortaz, Garena jatetxearen atarian egindako prensaurrekoan, azkolariak alkartu egingo ziral eta txapelketak euren kabuz antolatzen hasiko ziral adierazo eben. Hori holan, Binakako Sherpa.ai Txapelketea ospatu ahal izana azkolarien alkarlanaren emaitzea da.

MENDIA

Austarri Mendi Taldea Campiña eta Moncayo mendietara joango da urri lehenengoaren 18 eta 19an

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 18 eta 19rako plana aspalditik dabe zehaztuta Zeberioko Austarri Mendi Taldeko kideek. 18an goizean goizetik alkartuko dira mendizaleak, 07:30ean, eta autobusez abiatuko dira Burgoseko Neila

mendilerrotzantza.

Behin bertara helduta, Campiña (2.029 metro) eta Moncayo (2.314 metro) mendiak igoteko asmoa daukie mendizaleek.

Alkarteko kidea izan ez arren, posiblea da apuntetea. Izen-emotea urri lehenengoaren 11n amaituko da eta ohiko moduan,

mendi taldearen lokalean –barikuetan 20:00etatik 21:00etara–, telefonoz (665 735 054 eta 656 415 597) edo austarrimenditaldea@gmail.com helbidean emon ahal da.

Bazkideek 50 euro ordaindu behar harko dabez; besteek, osterara, 60. Prezioaren barnean joan-etorriko autobusa, 18 gaueko afaria zein logela eta 19ko gosaria sartzean dira.

Campiña

Burgoseko hego ekialdean kokaturako mendi hau Neilako aintzirek egiten dabe ezagun. Izan be, Neilako parke naturalean kokatuta

TRINKETEA

Ekhi Ziarrustak Berria Open Trinkete Txapelketea irabazi eban

Ugarte-Ziarrusta bikotea tantu biko aldeagaz nagusitu jakon Inchauspe-St. Pauleri markagailua 40-38 itxita.

Erredakzinoa

Garagarriaren 4an Hazparneko Berria trinketean jokatu zan Berria Open Txapelketearen finala. Bertan, 40-38 irabazi eutsan Ugarte-Ziarrusta bikoteak Inchauspe-St. Paul bikoteari.

Baionako masterrean, barriz, dimoztarrak ez eban emaitza bera lortu. Garagarriaren 19an jokaturako partiduan Darmendrail-Lambert bikoteak 40-31 irabazi eban Ziarrusta-Guinchanduten aurka. Hortaz, dimoztarra Baionako masterreerako klasifikau barik gelditu zan.

Itxaropentsu hasi eben partidua Ekhi Ziarrustak eta bere bikotekide Guinchandutek garagarriaren 19an Donibane Garaziko Garat trinketean jokaturako partidua. Baina kirol emonaldiak aurrera egin ahala, Darmendrail eta Lambert gailendu ziran eta 40-31ko emaitzeagaz itxi eben markagailua. Hori holan, Ziarrusta eta Guinchandut garagarriaren 28an, 29an eta abuztuaren 1ean jokatu zan Baionako masterretera sailkatu barik gelditu ziran.

Ziarrustak azaldu dau norgehiagokearen hasieran "partidua irabazteko aukerea" ikusten ebela. Halanda be, orokorrean arerioak "partidu guztian hobeto" ibili ziral balorau eban: "Saiatu ginan eusten, baina azkenean, ezer be ez".

Ekhi Ziarrustak eta Ducassouk Arrangoitzeko Hoberenak Txapelketako finala be jokatu eben garagarriaren 14an baina 40-32 galdu eben Larralde eta St. Paul bikotearen kontra.

Hurrengo erronkak

Dana dala, Ziarrustak beste erronka batzuk ditu aurretik, Cambo boko trinkete torneoan parte hartuko dau-eta. Erronka berezia da Ziarrustarentzat, izan be, bera da afizionau mailako bakarra eta, hortaz, partidua "gogorra" izango dala aurreikusten dau.

Ziarrustak abuztuaren 4an jokaturako finalerdia Ducassouk batera gaueko 21:00etan. Euren lehiakideak Darmendrail eta Guinchandut izango dira.

Partidu hori irabazi ezker, abuztuaren 9ko finala jokaturako dau dimoztarrak.



dago tontorra.

Hori holan, jatorri glaziarra daukien hainbat zingira topau leitekez Campiñara igoteko bidean: Laguna Larga eta Laguna Negra, bisitari gehien jasoten dabezanak euren sarbide erraz eta edertasunagaitik; Laguna Corta, urtean zehar hilabete asko lehor egoten dana; Laguna de la Cascada, urteko sasoiaren arabera itxuraz erabat aldatzen dana; Laguna de los Patos eta Laguna Brava, besteak beste.

Moncayo

Moncayo edo San Miguel mendia Zaragoza eta Soria artean



UDA KULTURALA

Abuztuan be Uda Kulturala Igorren

Antzerkiek, kontzertuek, bertsoek eta jantzek osatu eben Igorreko Udalak garagarrilerako prestatutako eskaintza kulturala. Abuzturako be ekintza bi dagoz antolatuta. Hilaren 7an Tio Teronen Semeak taldearen *Festamentua* ikuskizuna egongo da eta 21ean Liher taldearen kontzertua; saio biak udaletxe ondoko frontoian dagoz aurreikusita arrastiko 19:00etan.

Erredakzinoa

Eguraldia txarra bada Kultur Etxean izango dira ekintzok. Ikus-kizunetarako konbiteak www.igorrekultura.blogspot.com helbidean hartu behar dira aldeztu aurretik. Igorren erroldatuek izango dabe lehentasuna.

Festamentua

Tio Teronen Semeak taldea hainbat aldiz ikusteko aukerea egon da BEGITUren eremuan. Oingoan *Festamentua* jantza eta musika ikuskizuna dakarre. Urtetan zehar, eta gaur arte, euskal jantza tradizionalean murgilduta dagozan jantzariak eta musikariak dira, baina, oingoan, ez dabe holangorik eskainiko. Jantza eta musika estilo desbardinak joan eta etorriko dira, nahastu eta aldentuko dira; patroiz zehatz bat segidu barik eta ondo pasetako helburu bakarraz. "Zoritxarreko egoera batean alkatzea egokitu jako gure lagun kuadrilla entzutetsuari; hileta batean, hain zuzen. Bertan, pasarteak ulertu guran ibiliko dira batera eta bestera, gertatutakoa iraultzeko esperantzaz" dino sinopsiak. Umore, jantza eta doinu ezagunez jositako ikuskizun original bezain barritzailea da *Festamentua*.



Liher taldea.

Liher

Liher taldea *Hemen herensugeak daude* izeneko hirugarren lan luzeagaz egongo da Igorren. 14 abestiz osotutako transmedia proiektua da, musika ez ezik ilustrazioa, narrazioa eta ikus-entzunezko materiala biltzean ditutana. Pieza guzti horreen batureak amodioa, indarkeria eta andrazkoaren bakardadea gai nagusi dituan fikziozko istorio bat kontauko dau.

2015. urtean hasi eban ibilbidea Liher proiektuak. Bakarkako maketa bat atera eban oin taldeko abeslari eta gitarra-jolea dan Lide Hernandok, *Arrazoi gitxi, denbora asko* izenekoak. Ostera, talde bilakatu zan proiektua, eta egun Iñigo Etxarri (gitarrea, koruak), Joshka Natke (bajua, koruak) eta Ander Berzosa (bateria) biltzean dira Liher izenaren azpian. 2016an *Hauts* izeneko lehen lan luzea argitaratu eben; eta, 2018an, *Tenpluak erre*, taldeak rockaren soinu gogorragoetarako bidea hartu eban behar honegaz. Ia 100 kontzertu emon ebazan bigarren lan luzea aurkezten, bai Euskal Herrian, bai espainiar estaduan, bai Europako hainbat herrialdetan. Martian hasi eban ostera hirugarren diskoa aurkezteko kontzertu bira.

UDAKO EKINTZAK

Dozena erdi jarduera hileon Kallean gora kallean behera programazinoaren barruan Areatzan

Kallean gora kallean behera izenpean, sei kultura jarduera egongo dira abuztuan.



Sacred ikuskizuna.

Erredakzinoa

Antzerkia, zinea, musikea eta jantza bertikala egongo dira abuztuan Areatzan. Musikeak hartuko dau pisurik handiena; izan be, Ama lur izeneko musika zikloa dago ekimen honen barruan. Ama lur zikloak musikari andrazkoak emondako lau musika kontzertu batzean ditu, horreetako bi abuztuan izango dira.

Girls in Band jazz andra banda

eta Valeria Castro kanariarraren kontzertuak egongo dira; pelikula bi, *Akelarre* eta *El escándalo* ikusteko aukerea egongo da, eta kaleko arteen Malas Compañías Zirkio Taldeak *Orsai* antzezlanak eskainiko dau. Hilaren 26an ostera La Glo Circo konpainiaren *Sacred* jantza bertikal ikuskizuna egongo da frontoian. Ikuskizun honek ikusi ahal izateko izena Areatza Urtaroka webgunean edo udaletxean 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.



Orsai antzezlanak.

Kontzertu bi

Raquel Lúak garagarrilaren 30ean emondako kontzertua izan zan Ama Lur zikloko lehenengoa. Hurrengoa hilaren 15erako dago aurreikusita, 13:30ean Zubizarra plazatxoan, lau andrazkok osotzen daben Girls in Band jazz taldea da egongo dana. 1930-40ko hamarkadetakoa sexismo eta arrazakeriaren ondorioz, Ipar Ameriketara gorazarrerik lortu ez eben andra musikariak omendu guran batu diran musikarien laukotea dogu, espainiar estaduko hainbat lekutatik datozenak. Areatzan Irati Bilbao abeslariak lagunduta egongo dira. Taldekideak Elsa Lizundia (saxofoi tenorea), Maite Arregi (pianoa), Rakel Arbeloa (bateria) eta Magalí Datzira (kontrabajua) dira.

Hilaren 20an ostera, 21:30ean, bainuetxeko parkean, La Palman jaio zan Valeria Castro abeslari gaztea izango da.

Zinea, antzerkia eta jantza bertikala

Udaletxeko arkupeak dira atzean antolatzaileak udako gaubetan zinea eskaintzeko aukeratu-tako lekua. Abuztuko eguen bitan, hilaren 5ean eta 19an, 21:00etan, eskainiko dira saioak; *Akelarre* eta *Mujercitas* hurrengoak hurrengo.

Antzezlan bat be programau dabe Areatzan hilaren 7rako, 21:30ean, plazan ikusi ahal izango dana. Malas Compañías Zirkio Taldeak *Orsai* antzezlanak eskainiko dau. "Jokoz kanpo be jokatu egiten da..." esaldia abiapuntu hartuta zirkua eta antzerkia uztartuko dabez herritarren gozagarri: irudimenaren eta jolasaren laguntzeagaz, hiru pertsonaiek bidaia ikusgarri batean murgilduko gaitue, eta akrobazia eta esku-jolasen bidez, eguneroko objektu zein ekintzarik sinpleenak beste zentzu bat hartuko dabe.

Amaitzeko, hilaren 26an, gaueko 22:00etan La Glo Circo konpainiaren *Sacred* jantza bertikal ikuskizuna egongo da herriko frontoian. "Jantzea eta proiektzioa oinarri hartuta, ekitaldiak gudan dar-dar egiten dauan notari buruz hausnartzen lagunduko deusku... unibersoko taupaden partituran doan barne bidaia. Ezin da ekitaldi hau ikusteko aukerea galdu. Horixe bera da batzean gaituena; barnean daroagun unibersoaren hazia. Sacreden bidez, bizitzaren izaera ezaugarritzen daben geometria zoragarri guzti horreetara bidaiatzeko aukerea izango dogu" dino antolatzaileek.

MUSIKEA

Zeinke taldeak *Antiheroia*k diskoa aurkeztuko dau urri lehenengoan

2019 amaieran ekin eutson Zeinkek hirugarren lanaren sortze prozesuari. Itxialdiak erabat geldiarazo eban proiektua eta, oin, indarbarrituta itzuli dira sei kantako diskoagaz.

Erredakzinoa

Zeinke Lemoako rock taldeak *Antiheroia*k disko barria aurkeztuko dau urri lehenengoaren 23an, Lemoako Kultur Etxean. Diskoak sei kanta izango ditu eta taldearen betiko esentzia mantenduko dauan arren, ohikoa baino zeozer lasaia-goak diran kanta bi izango ditu. Diskoaren aurkezpen ekitaldia urri lehenengoaren 23an izanik, taldeak hilaren aurreneko astean single bat plataforma digitaletan eskuragarri jartzea aurreikusten dau. Kanta hori

argitaratu eta aste batera gainerako kantakaz gauza bera egitea gustauko litxakie taldekideei. Sortze prozesua aurrera eroatea ez da lan makala izan. Lemoako taldea 2019 amaieran hasi zan *Antiheroia*keko kantak konposatzen. Hori holan, 2020ko udabarrian estudioa sartu eta udarako kantak prest izatea zan euren asmoa. Grabaketarako estudio bila dabizala heldu zan pandemia eta CD barria bertan behera gelditu ez bazan be, prozesua asko mantsotu zan. 2020ko udagoieinean Le-

moako Karabie Gaztetxeak leku bat opatu eutsen entseguakaz hasteko eta poliki-poliki lanari berrekin eutsien. Hortaz, kantak prest izan ebezanean "asko pentsau barik" estudioa sartu zirala aitortu dau Jokin Uriarte taldekideak. Zeinkek aurreko diskoko ekoizle beragaz, Urtzi Izagaz, egin dau behar. Beraz, diskoa Bilbon grabau dabe barriro. Zuzenekoei jagokienez, itxialdia ezarri aurreko astegoieinean emon eban Zeinkek azken kontzertua. Horregaitik, Uriarte ilusinoz mintzatu da proiektuaren inguruan: "Lan honegaz esfortzu polita egin dogu eta gogotsu gagoz jenteak lan hori ikusteko eta eszenatokietara barriz igoteko". Oingoiz, taldeak ez dau udan

zehar kontzerturik emoteko asmorik. Uriarteren esanetan, esfortzu guztia disko barrian "zentretea" ebatzi dau hirukoteak, gero, urri lehenengotik aurrera, "topera" ibilteko. **Aurkezpen ekitaldia** COVID-19aren pandemia dala eta aforo murriztua egongo da *Antiheroia*ken aurkezpen ekitaldian. Urri lehenengoaren 23an izango da, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Aforoaren edukierea eguna heltzean indarrean dagozan osasun neurrietara moldatuko da. Hortaz, oindino ez dakie ziurtasunez zenbat ikusle joan ahalko diran; edozelan be, txartela aldeztatik eskuratu beharko da eta publikoak jesarritaz gozatuko dau kontzertuaz.



LEHIAKETEAK

Arratiako Ume-Gazteen I. Argazki eta Bideoen Lehiaketea martxan ipini dau Dimako Txumuluxueta Kultur Elkarteak



Erredakzinoa

Lehiaketea 18 urtetik beherako ume eta gazteei zuzenduta dago. Mitologia edo ekologia ardatz izango dabezan lanak abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. Dimako Txumuluxueta Kultur Elkarteak Arratiako ume eta gazteai zuzendutako Arratiako Ume-Gazteen I. Argazki eta Bideoen Lehiaketea ipini dau martxan. Lehen edizino honen gaiak mitologia eta ekologia izango dira. Beraz, parte-hartzaileek bata edo besteagaz lotutako argazki edo bideoak aurkeztu beharko dabez abuztuaren 31 heldu aurretik. Lehiakide bakotzak argazki eta bideo bana aurkeztu ahalko ditu. Argazkiak Mb batekoak izan ahalko dira gehienez eta bideoak ezingo dabe minutu biko iraupena edo bost Mb-ko pisua gainditu. Lanak jentilakdiman@gmail.com helbidera bialdu behar dira eta mezuan honakoak zehaztu behar dira: izen-abizenak, telefonoa, adina eta herria. Argazkiak jaso ahala jentilakdiman.eus helbidean eskegiko dira. Irabazleak webgunean sartzean diranen botoakaz ebatziko dira. Lehiaketarean antolatzaileak diran Dimako Guraso Elkarteak, Txumuluxueta Kultur Elkarteak eta Herri Ikastetxeak Diman banatuko dabez sariak urri lehenengoaren 25ean.

LIBURUA

Ekin alkarregaz liburua aurkeztu dau Diman Txumuluxueta alkarteak

Liburuak azken urteetan Dimako alkarte desbardinek herriari eta haren ondare kulturalari egindako ekarpenen inguruko hausnarketak batzean ditu.

Erredakzinoa

Bagilean argitaratu eben Dimako alkarteek alkarlanean idatzitako eta Txumuluxuetak koordinatutako *Ekin alkarregaz* liburua. Liburuak herriko eragile bakotzak Dimako kultureari eskaintzen deusnan ekarpenaren inguruan hausnartzera konbidatzen dau. Hortaz, liburua 2020ko Dimako kultur bizipenen eta proiektuen argazki edo memoria da. Proiektuaren idea eta gerora, liburuaren izenburua, abenduan Diman antolatutako mahai inguru batetik urten zan. Dimako 25 alkarteetatik 15 alkartu ziran solasaldiko hitzorduan. Bertan, Dimak bizi dauan kultur egoeraren inguruan hausnartu eben eta hurrengo urteetako ibilbidea zein izan behar zan ebatzi eben. Etorkizunera begira, berba bi nagusitu ziran: "ekin" eta "alka-

rregaz". Hori izan zan liburuaren abiapuntua. Hausnarketa eta bizipenak batzeaz gain, lanak hainbat ondorio plazaratu ditu. Txumuluxueta alkarteko kide dan Manu Aurrekoetxeak azaldu dau lehenik eta behin, Dimako kultur egoerea "aktiboa" eta "dinamikoa" dala ikusi dabela. Horrezaz gain, Aurrekoetxeak azpimarratu dau 1.400 biztanleko udalerrri batean 25 alkarte aktibo egoteak "kulturearen garapenean jarduteko gogo" erakusten daua. Bigarrenik, Aurrekoetxeak azaldu dau lanaren bitartez alkarteek ikusi dabela "alkarregaz lan eginda sendagoak" dirala. "Abendutik hona, alkarteek alkarlanean egindako ekintza kopurua asko igon da", esan dau. Horrezaz gain, Aurrekoetxeak dino alkarteek bat egiten dabela Dimako azpiegitura kulturalak

nahikoak ez dirala esatean: "Diman kultureak daukan gabezia bat azpiegitura faltea da. Datozan urteetan, epe laburrean, pausuak emon gura geunke azpiegiturei jagokienez. Ekin-tzen duintasuna eta ikusgarritasuna



Liburuaren aurkezpenera hurreratutakoak.

suna hobia dalako azpiegitura egokiakaz". **Galderea Arratiako beste herrietako eragileei** Etorkizunera begira, Aurrekoetxeak galdera bat proposatu gura deutse Arratiako gainerako herrietako kultur alkartei: "Bakotxa bere herrira mugatu beharrean, herrietatik salto txikitxo bat egingo bagendu Arratia mailara?". Hori holan, herri desbardinetako alkartei alkarlanean jarduteko konbitea egiten deutse Aurrekoetxeak Txumuluxueta kultur alkartearen izenean. "Hurrengo urteetan herri eta alkartearen arteko hausnarketa misto batek emaitza polita emon leikela" uste dau Aurrekoetxeak.

AGENDEA

ABUZTUAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

AREATZA

Parketxeak antolatuta hagin en bila. Ekintza autogidatua Arimekortako larreetan dagozan zugatz bereziak ezetuteko. Bisitea antolatzeko informazioa Parketxean jaso behar da.

Liztor asiarrari buruzko erakusketea Parketxean ikusgai garagarri eta abuztuan zehar. Bere ohiturak, arriskuak, eta abar.

BEDIA

Urri lehenengoaren 17ra arte, Udan be irakurten. Bialdu argazki bat irakurten *liburutegia@bedia.biz* helbidera edo 636 325 578 WhatsAppera, "Udan be irakurten" esaldiagaz, izen-abizenak, argazkia noz eta non eginda dagoan eta argazkian agertzen dan liburua ea gomendatzeko dan esanez.

DIMA

Arratiako Ume-Gazteen 1. Argazki eta Bideoen Lehiaketea. Arratiako 18 urtetik beherakoentzako. Abuztuaren 31ra arte jasoko dira euskal mitologia eta ekologiaren inguruko erretratu eta bideoak. Antolatzaileak: Dimako Guraso Elkarte, Txumuluxueta eta Herri Ikastetxea. Parte-hartzaile bakotzak Mb bateko erretratua eta gehienez, minutu biko bideo bana bialdu ahal dau *jentilakdiman@gmail.com* helbide elektronikora. Hurrengo datuak be agertu behar dira: Izen-abizenak, kontakturako telefonoa, herria eta adina.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

ZEANURI

Abuztuaren 10era arte Zeanuri Loran Txapelketea. Kategoria bi dagoz. Batetik, pisuetako balkoiak balorauko dira eta, bestetik, etxeetakoak. Kategoria bakotzeko balkoi onenak 200 euroko saria izango dau, bigarrenak oster, 100 euro. Epaimahaia Zeanuriko Kultur Batzordeko kideak eta lorezaintzan aditua dan persona batek osotuko dabe.

ABUZTUAK 5
AREATZA

21:00etan, zinea, *Akelarre* filma udaletxeko arkupetan. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.



ABUZTUAK 7
AREATZA

21:30ean, antzerkia, kalekoa arteak, Malas Compañías Zirko taldearen *Orsai* antzezlan plazan. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.

IGORRE

19:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen *Festamentua* jantza eta musika ikuskizuna udaletxe ondoko frontoian. Konbiteak *www.igorrekultura.blogspot.com* helbidean eskatu behar dira.

ABUZTUAK 11
ARTEA

18:00etatik aurrera, Kafrangak andra taldeak antolatuta, Kakorratzagaz artistak + barriketaldi feministak plazan.



Valeria Castro kanariarra Areatzan

Abuztuaren 20an, 21:30ean, bainuetxeko parkean, La Palman jaio zan Valeria Castro abeslari gaztea izango da. Ama Lur zikloko hirugarren kontzertua izango da.

Sare sozialetan emon zan ezetutera. Bersino akustikoak egiten hasi zan modu autogestionaduan, eta apurka-apurka gero eta jente gehiagorengana heldu da. Spotifyn 4 milioi erreproduktzio izatera heldu da.

Sensibilidade paregabakoagaz, estetika zainduagaz eta folkloerari keinu bat eginaz, artisteak 2020. urte amaieran aurkeztu zuen *Ay, amor*. Abestiaren mezuak gizabakotasuna ez ulertzeari buruzko hausnarketarako bidea emon eban, eta konpositore moduan emon eban lehen urratsa izan zan, ondoren *La corriente* bigarren kantua aurkeztuz finkatu ebana. Bigarren lan horrek gauza barriei bildur izatea du berbabide, zugaz nor dagoan eta nor ez dagoan ez jakiteari bildur izatea.

Lehen lanetik kaleratutako bi kantuek harrera ona izan eben eta holan, hilero plataforma digitaletako 280.000 entzulek baino gehiagok Valeriaren musikea izan dabe lagun.

ABUZTUAK 13
ZEANURI

Andra Mari Kulturalak. 18:30ean, pelota partiduak Ibarretan; 22:00etan, Xabier Aburruzagaren kontzertua plazako frontoian.

ABUZTUAK 14
ZEANURI

Andra Mari Kulturalak. 11:00etan, umeen jokoak; 18:00etan, Ardi Txakur Txapelketea; 22:00etan, *Ez dok ero* antzezlan Ibarretako frontoian.

ABUZTUAK 15
AREATZA

13:30ean, Girls in Band jazz emakume banda Zubizarra plazatxoan. Ama Lur andrazkoen musika zikloa. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94

673 90 10 telefonoan emon behar da.

ARTEA

10:00etan, auzolana. Iraultza Txiki en Akanpada dala eta Basoa defendatzaileen etxea atontzeko deialdia. Ondo biziteko gogoa eta lanabesak euki ezker oeroateko eskatu dau antolakuntzeak.

ZEANURI

Andra Mari Kulturalak. 11:30ean, mezea Andra Mari parroki en; 13:00etan, trikitilari bikotea plazan; 19:00etan, *Áureo Up* Arte konpainiaren zirku antzerkia Ibarretan; 22:00etan, Deabru Beltzak-en *Su à feu* ikuskizuna Ibarretako plazan.



ABUZTUAK 16
ZEANURI

Andra Mari Kulturalak. 11:30ean, mezea Andra Mari parroki en; 18:30ean, pelota partiduak Ibarretan.

ABUZTUAK 18
ARTEA

09:00etan, plazan. Mikel Deuna Jubilatua eta Pentsionistak alkarteak antolatuta ibilaldia. Plazea, Santamañe, Sarasola, Murga, Laureta, Upukomakatza, Esparta eta plazea. Bakotzak bere ura edo eta hamaiketako eroan behar dau.

ABUZTUAK 19
AREATZA

21:00etan, zinea, *Mujercitas* filma udaletxeko arkupetan. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon behar da.

ABUZTUAK 21
IGORRE

19:00etan, Liher taldearen kontzertua udaletxe ondoko frontoian. Konbiteak *www.igorrekultura.blogspot.com* helbidean eskatu behar dira.

ABUZTUAK 22
ARTEA

10:00etan, auzolana. Iraultza Txiki en Akanpada dala eta Basoa defendatzaileen etxea atontzeko deialdia. Ondo biziteko gogoa eta lanabesak euki ezker oeroateko eskatu dau antolakuntzeak.

ABUZTUAK 23
DIMA

21:30ean, Deabru Beltzaken 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. Aforoa mugatua izango da.

ABUZTUAK 24
ARTEA

18:00etatik aurrera, Kafrangak andra taldeak antolatuta, kakorratzagaz artistak + barriketaldi feministak plazan.

ABUZTUAK 25
ARTEA

Iraultza Txiki en Akanpada. 13:30ean, bazkaria; 16:00etan, harrera ekitaldia; 18:30ean, hiru berbaldi; 21:00etan, afaria; 22:00etan, Ane eta Maddi kantautoreak. Arrastian umeentzako guneak egongo dira. Berbaldiak 8. orrialdean ikusi.

ABUZTUAK 26
ARTEA

Iraultza Txiki en Akanpada. 08:00etan, Chikung Idoia Eizmendigaz eta ostean gosaria: 09:00etan, asanbladea. 10:00etan, hiru berbaldi; 13:30ean, bazkaria eta ostean Peru Galbete kantautorea; 16:00etan, hiru berbaldi; 18:30ean, hiru berbaldi; 21:00etan, afaria; 22:00etan, Rap gaua: Laize Kiñu Gaztetxean eta Andrezaharren manifestua poesia emonaldia Mari Luz Estebanegaz Basoan. Goizean eta arrastian umeentzako guneak egongo dira. Berbaldiak 8. orrialdean ikusi.

AREATZA

22:00etan, jantza bertikala frontoian. La Glo Circoren *Sacred* ikuskizuna. Izena Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 udaletxeko telefonoan emon.

ABUZTUAK 27
ARTEA

Iraultza Txiki en Akanpada. 08:00etan, Chikung Idoia Eizmendigaz eta ostean gosaria: 09:00etan, asanbladea. 10:00etan, hiru berbaldi; 13:30ean, bazkaria eta ostean Ane eta Ainize kantautoreak; 16:00etan, hiru berbaldi; 18:00etan, *Matraka ma non troppo* (Trakamatraka konpainia); 18:30ean, hiru berbaldi; 21:00etan, afaria; 22:00etan, bertso afaria Saioa Alkaiza, Miren Artetxe eta Onintza Enbeita. Goizean eta arrastian umeentzako guneak egongo dira. Berbaldiak 8. orrialdean ikusi.

ABUZTUAK 28
ARTEA

Iraultza Txiki en Akanpada. 08:00etan, gosaria: 09:00etan, asanbladea. 10:00etan, hiru berbaldi; 11:00etatik, 14:30era, azoka erakusketea eta tomate dastaketea Arteako plazan; 13:30ean, bazkaria eta ostean Nerea Arriolaren bakarrikzket; 16:00etan, hiru berbaldi; 18:30ean, hiru berbaldi; 21:00etan, afaria; 22:00etan, Ein Go musika taldea. Goizean eta arrastian umeentzako guneak egongo dira. Berbaldiak 8. orrialdean ikusi.

ABUZTUAK 29
ARTEA

Iraultza Txiki en Akanpada. 08:00etan, gosaria: 09:00etan, asanbladea. 10:00etan, mural margoketea eta ibilaldi martxea: Eukaliptorik ez, haritza bai; 13:30ean, bazkaria eta ostean Folkaraokea; 16:00etan, itxiera ekitaldia. Goizean umeentzako guneak egongo dira.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BEGIRALEAK BEHAR DIRA
 Guraso Elkarrekin zaintza lanak egiteko begiraleak behar ditu 2021/2022 ikasturtean. Bialdu curriculum, ampalemoa@gmail.com helbidera.

LANA ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA
 Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: naraa_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

SALTZEAN DOT
 Ohe artikuluaua salgai, urritasunen bat daukan personentzat aproposa. Telefonoa 657 777 542.

LAN EGITEKO PREST
 Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan

hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkerodeitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
 Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LAN BILA
 Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neskame edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Garena jatetxeak emondako txakolin kajatxoa.

Alex Agirre (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
sema
 e-ig
 Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • sema@sema.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA
 ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA
 Boko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

NAIARA Hartz Klinika
 Lehendakari Agirre, 19
 48140 Igore
 94 631 52 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
 Sabino Arana, 3, 3a
 Igore 48140 Bizkaia
 94-673-70-87
 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATEXEA
 Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
 Tel.: 94 631 52 83
zekutzejateak@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
 Sabino Arana, 35 48.140 Igore
 Tel. 94 631 15 26

ZUZENBIDE
 ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK
 AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA
 DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...
 Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. beheia • Igore (Bizkaia)

BIZARGINAK
 Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bixarra egin eta bukunduz dogu
 Telf. 94 607 78 33
 Lehendakari Agirre 9, beheia IGORRE

Pinturas Aratia
 Javi Morato
 Tel. 628 443 992

begitu

SAREKO BIDE BARRIETATIK BARRENA



www.begitu.eus
begitu@begitu.eus

Iñigo Iruarrizaga
Zuzendaria eta publizidade arduraduna
649 979 115
iñigoirua@begitu.eus

Beatriz Azpiri
Erredakzino burua
649 979 112
beazpiri@begitu.eus

Asier Abrisketa
Webgunearen arduraduna
626 647 923
asierabrisketa@begitu.eus

 [/begitu.aldizkaria](https://www.facebook.com/begitu.aldizkaria)

 [/BegituEus](https://twitter.com/BegituEus)

 [/begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)



begitu